

4. UNITATEAREN GLOSARIOA

1. Zelularen barrua betetzen duen ur-ingurua da:
2. Mantenugai organikoak sintetizatzen dira, askotan Eguzkiaren energia erabiliz eta fotosintesia eginez:
3. Espezie bat izendatzeko bi izenen multzoa da:
4. Funtzio jakin batzuetan espezializaturiko egitura txiki-txikiak dira:
5. Nukleorik ez duten zelulak dira eta haien DNA zitoplasman barreiatuta dago:
6. Zelula biltzen duen geruza mehea da eta kanpoko inguruarekin egiten den substantzia-trukea doitzen du:
7. Zelula prokariotoak baino konplexuagoak dira eta haien DNA mintz batez inguratuta dago, nukleoa osatzen dena:
8. Banako bakar batek ondorengo berdin-berdin bat sortzen du:
9. DNA zuntzen multzoa da, eta zelularen funtzionamendua kontrolatzen du:
10. Prozesu honi esker izaki bizidunek bizirik irauteko behar dituzten materia eta energia lortzen dituzte:
11. Zelula bat baino gehiago izaten dituzten izaki bizidunak dira:
12. Lurrean bizi diren izaki bizidun guztiek osaturiko geruza da:
13. Biziaren unitate estrukturala eta funtzionala da edo bizi funtzioak bete ditzakeen unitaterik txikiena da:
14. Materia organikoa eta energia beste izaki bizidunetatik lortzen dira:
15. Sexu desberdineko bi banakok (arrak eta emeak) beren antzeko ondorengoak sortzen dituzte:
16. Izaki bizidunak kanpoko inguruan edo organismoan bertan gertatzen diren aldaketei erantzuna emateko prozesua da:
17. Espeziea bizirauteko izaki bizidunek antzeko beste bat sortzeko prozesua:

18. Izaki bizidunak sailkatzen dituen zientzia da:
19. Ugalketa zelula espezializatuak dira (espermatozoideak eta obuluak):
20. Antzekoak diren eta ugaltzeko aukera duten izaki bizidunen multzoa da:
21. Prozesu konplexu bat burutzeko elkartzen diren organoen multzoa:
22. Zelula bakar batez osatutako izaki bizidunak eta bizi funtzio guztiak betetzen dituen:
23. Funtzio berean espezializaturiko zelulen multzoak dira:
24. Funtzio zehatz bat egiten duten ehunen multzoa da: